

AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN
IBILBIDEAK.

ZAINKETA KOMUNITARIOEN IBILALDIA

D.SANTI BROUARD

PLAZA, ELKARTEEN BOTEREA

Plaza, harmaila, elkarte askoren
topaketarako eta aldarrikapenerako
lekua.



Garai batean, leku honen bihotzak pantailaren erritmora egiten zituen taupadak. Recio zine-aretoa zen, eta, bertako 999 eserlekuetan zein jolasgunean, umeak eta gazteak barreen nahiz lasterketen artean bizi ziren. Hemen, orain dela ia-ia berrogei urte, arratsaldeak igarotzen zituzten krispeten usaina eta partekatutako historien emozioa arnasten. Urteen joan-etorrian, filmetako oihartzun hark beste era bateko kontakizunari urratu zion bidea: bizitza kolektiboari eta topaketaren espirituari eutsi nahi izan zion erkidegoari buruzko kontakizuna. Horrelaxe jaio zen plaza hau, Santi Brouard pediatriaren omenez, oroimenaren, borrokaren eta eraldaketa kolektiboaren erakusgarri.

Gaur egun, leku hau ez da plaza bakarrik: eszenatokia eta elkargunea ere bada, eta, bertan, herriaren bihotzak egiten ditu taupadak. Hemen, kaleko antzerkiak arte bihurtzen du egunerokotasuna, hitzak gorpuztu egiten dira, keinuak protesta bihurtzen dira eta barreak justizia eskatzen duten ahotsekin nahasten dira. Zoru honetan, indarkeria matxistaren aurkako kontzentrazioetako eta azaroaren 25etako oihartzuna entzuten da, eta, bertan, herriak bat egiten du, “nahikoa da!” oihukatzeke eta isilik geratzen ez direnei laguntzeko.

Plaza bera gurari onen lekua ere bada, bertan gaizkia erretzen delako San Joanetako suteetan eta berriari ematen zaiolako ongietorria. Bertan, gainera, herritarrak ilusio handiz daude jaiak, Gabonetako azoka txikia eta auzokoan bizitza eratzen duten haur-jolasak noiz iritsiko zain.

Bertan, aniztasuna agerikoa eta harroa da: ostadarraren koloreez margotutako harmailak nortasun guztiak besarkatzen dituzte, errespetua eta askatasuna ere modu kolektiboan ospatzen direla oroitzeko. Bertako hormetan, “aske maite, aske

**AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN
IBILBIDEAK.**

ZAINKETA KOMUNITARIOEN IBILALDIA

bizi, nahi dogunean nahi dogulako” leloa dago ikusgai, eta beldurrik gabe izateko eta maitatzeko eskubideari buruzko adierazpena da.

Plaza dendaz, tabernaz eta kafetegiz dago inguratuta, eta, egunero-egunero, isolamenduaren aurkako leku lasai zein atsegina da. Gizarteratzeko, kultura sustatzeko eta erresistentziari eusteko eremua da, eta, bertan, udalerriko elkarteek hazteko eta partekatzeko zoru bateratua aurkitzen dute.

Azken batean, Santi Brouard plaza mugimenduan dagoen oroimena da: bertan, Galdakaok bere aniztasuna du ezaugarri bereizgarri, borrokak erkidego bihurtzen dira eta arteak, hitzak zein agerpen kolektiboak iragana ahazten ez duen eta, egunez egun, etorkizuna eratzen duen herriaren gidoia idazten jarraitzen dute.

BAZENEKIEN... OMEk elkarteak eta partaidetza komunitarioa hartzen dituela biztanleen ongizatea eta osasuna hobetzeko funtsezko faktoretzat?